

Herri Aldizkaria otomota

1999ko otsaila 45. alea



QUEMALIZATEEN

Zintzo
Mintzo
elkarteak

MARTXOKO AGENDA

6. larunbata

Haurrentzako eskulanak. Antolatzailea: kaskazuri. Urretxuko Kultur Etxean 11etatik 13etara.

Mendi irteera
San Inazioaren bidea.
Lehenengo etapa. Goierri
K.E. Irteera: 7:00

7. igandea

Zikloturismoa
Urretxu-Azpeitia-Nuarbe
Antolatzailea: Goierri K.E.
Irteera: 7:00

Areto futbola Aldirin
Goierri-Etxadi

III. Abesbatzen lehiaketa
Zumarragan
Haurren abesbatzak:
Santurtzi, Ondarrueta eta
Irungoak.
11:30 etan izango da eta
11etan autobus zerbitzua
egongo da Antiguara igo-
tzeko.

Haur eta gazteentzako
zinea.
Haurrentzat: "Lokomotora
ttikia" eta "Pocahontas II"
16:30etan, sarrera 100
pzta.
Gazteentzat "Arma letal
IV". 18:30etan, sarrera 200
pzta.

Futbola Argixaon: Urola-
Sporting Herrera. (Juv.
ohore.)
Urola-Burumendi

8. astelehena

Emakumearen eguna:
kafea, pelikula eta hitzal-
dia. Urretxuko Kultur Etxe-
an 15:30etan.

9. Asteartea

Oñatik Musika Eskolako ikas-
leen kontzertua Legazpi
dorretxean 19:00etan.

13. larunbata

Haurrentzako eskulanak
Urretxuko Kultur Etxean goi-
zeko 11etatik 13etara.
Antolatzailea: Kaskazuri.

14. igandea

Mendi irteera La Gurebara
(Burgos).Poza de la Sal- El
Costelar (1130m)-Altoteiro
(1176)-Salas de Gureba.
Antolatzailea: Ostadar.
Irteera: Zumarragako parro-
kian 7etan.

III. Abesbatzen Lehiaketa.
Ahots mixtoen abesbatzak:
Etxarri Arantz, Olite, Erribera
eta Gernika.
11etan elizan autobusa
Antiora. Ekitaldiaren hasera
11:30etan.

Haur eta gazteentzako zinea
Zumarragan:
Haurrentzat:
"Bobobobs"16:30etan.
Gazteentzat: "El laberinto
rojo" 18:30etan.

Futbola Argixaon: Urola-
Aloña Mendi (preferente)

Urretxun zikloturismoa:
Urretxu-Bergara-Osintxu
Antolatzailea: Goierri
10etan.

Areto futbola Aldirin. Goierri-
Gu lagunak. Euskal Liga.
Goierri-Plaza berri. 2. probin-
tziala.
Goierri-Albatros. Neskak.

Saskibaloia Aldirin: Goierri-
Salesiarrak. 2. probintziala.

15. astelehena

Solasaldia Urretxuko Kultur
Etxean 16etan.
Antolatzailea: Mairi.

19. ostirala

Goierriko zikloturistak
Gaintzara joango dira.
Irteera:10etan.

21. igandea

Haur eta gazteentzako zinea
Zumarragan.
Haurrentzat: "Ipar Haizearen
Itzulera"
16:30etan.
Gazteentzat: "Mr Magoo",
18:30etan.
La Salle ikastetxeko aretoan.

Futbola Argixaon: Urola-
Hernani (jub. ohorezko)

Goierriko zikloturisten irteera:
Urretxu-Iraeta-Arrona Goiko.
Irteera: 10etan.

22. astelehena

Literatur solasaldiak
Urretxuko Kultur Etxean
Mairiren eskutik.
Ordua:16etan.

25. osteguna

Zumarragako Legazpi dorre-
txean Sekundino Esnaola
musika eskolako ikasleen
kontzertua.
19etan.

Erakusketak:

Marta López de Gaunaren pintura erakusketa Martxoaren 11tik 21era Juan de Lizarazu aretoan.

Jaione Arri Martínezen pintura erakusketa Itarte Etxean mar-
txoaren 5etik 14ra.
Itarte Etxean ere, Martxoaren 18tik 28ra Arte Ederretako
eskolako ikasleen akuarelak.

27. larunbata

Haurrentzako eskulanak
Urretxuko Kultur Etxean goi-
zeko 11etatik 13etara.
Antolatzailea: Kaskazuri.

28. igandea

Haur eta gazteentzako zinea
Zumarragan:
Haurrentzat: "Amona
Kulixka"16:30etan.
Gazteentzat: "El ultimo patrio-
ta" 18:30etan.

Futbola: Urola-Arrasate (jube-
nilak).

Goierri K.E.ren mendi irteera
Nafarroara. Zilbeti-
Artxabal(1206)-Eugi-
Burdindogi(1244)-Lanz.

Goierri Zikloturistak: Urretxu-
Legazpi-Elosua.

Pailazoak Ederrenak: Takolo,
Pirritx eta Porrotx. 18etan.
Sarrera 600 pzta.

Areto futbola Aldirin. Goierri-
Kruntx. Euskal Liga.
Goierri-Bingo Londres. 2. pro-
bintziala.
Goierri-Plamaresano. Neskak.
Goierri-Idiazabal. Neskak.

Saskibaloia Aldirin: Goierri-
Inter

29. astelehena

Literatur solasaldiak
Urretxuko Kultur Etxean
Mairiren eskutik.
Ordua:16etan.



Athletic sortu zenean noren kontra jokatu ez zutela eta gure bi herriotara etortzen omen ziren Txuribaldarra futbol taldearen aurka jokatzera. Hauek ere euren omenaldia mereziko dute ba!
 Hona hemen garai hartako ohiko hamaikakoa: Pello Aranguren, Luis Barrutia, Ignacio Arratibel, Juan Arratibel, Ignacio Anduaga, Javier Andueza, Jose Luis Ruiz, Seve Egiguren, Jose Mari Agirrebeña, Manuel Korta eta Pedro Arratibel.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
 Tel:943725775 **koordinatzailea:**Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai,Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Azala: Bere Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318
 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
 Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
 Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

LA SALLE - LEGAZPI
 Ikastetxea



Iñigo Loiola,7
 943 721514
 ZUMARRAGA



BAPRI
 ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 72 61 13
 ZUMARRAGA



Legazpi, 5
 943 726274
 ZUMARRAGA



Korrika 11: Martxoaren 19tik 28ra

Urretxu-Zumarragatik 24an pasatuko da

Hemen dugu aurten ere Korrika udaberriari ongietorria emanez. AEK-k bi urtez behin antolatzen duen ekitaldi honek gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu.

Aurtengo Korrika hamaikagarrena dugu eta martxoaren 19tik 28ra bitartean Iruñeatik Donostiara joango da. 9 egunez, gau eta egun, 2.100 kilometro baino gehiago korrituz adin eta mota guztietako milaka pertsonak parte hartuko dute.

Korrika 11ren leloa **1+1=11. Zu eta ni euskaraz** eta hona hemen bere zentzua eta aldarrikapena: Euskara Euskal Herri osoko hizkuntza da eta Euskal Herria euskalduna nahi dugu euskal herritarrok. Hori gauzatzeko hamaika lan egin behar da oraindik eta horretarako guztion konpromisoa derrigorrezkoa da. Korrika 11k euskararen aldeko konpromiso horiek bultzatuko ditu Euskal Herri osoan auzolanarekin batera.

Baina orainarte ere lan ugari egin da, Korrikak *hamaika* egindako bat guztiak omendu nahi lituzke eta hamaikagarren edizio hau bera izan bedi guztiontzat omenaldia. Hori agerian utzi nahian AEK-k 11 lagun/talde/herri... hartu ditu honen erakusgarri izan daitezten: Pedro Migel Etxenike zientzialaria, Jose Ramon Etxebarria irakaslea, Jose Angel Iribar Athletic-eko atezain ohia,



Zumarraga-Urretxutik pasa ondoren Korrika Oñatira abiatuko da

Maitena Aranguas AEKko irakaslea, Etxepe eta Mendia Optika enpresak, Laudioko ikastolaren sortzaile taldea, Argiñe Iturregi irakaslea, Euskal Herria irratia, Arantza herri nafarra eta Maiatz idazle kolektiboa.

Korrika 11n parte hartzeko bideak asko dira. Hona hemen batzuk: kilometroak subentzionatuz, enpresek Korrika beraren edo korrikalarien publizitate euskarriak babestuz, petoa erosiz, Korrika-lagun txartela erosiz edo Euskadiko Kutxako 072.0.00571.0 kontu korrontean dirua sartuz, materiala erosiz,

herriko Korrika batzordean parte hartuz eta nola ez! petoa jantzita korrika eginez.

Baina Korrika ez da soilik euskararen aldeko jendearen konpromisoa bilatzen duen lasterketa. Otsailaren 13an eman zitzaion hasiera Korrika kulturalari eta ordutik hona hamaika ekitaldi antolatu dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan. Honen adibide ihauterietan Zumarragan antolatu zen bertso-afaria eta baita aurrerantzean izango diren ekintza ezberdinak dira:

-Martxoaren 1etik 7ra: Korrikaren azken lau edizioetako argazki erakusketa herriko taberna ezberdinetan.

-Martxoaren 6an sagardotegi-bazkari erraldoia eta ikuskizun ezberdinak eguneko zehar Astigarragan. Sarrerak 2500 pza. balio du (dena barne). Autobus txartelak Aldiri, Alaska, Osaba eta Florida tabernetan daude salgai 1000 pezetatan. Korrika 11ko materiala ere taberna hauetan aurki dezakezue.

Ekitaldi hauetan parte hartzeaz gain korrika egiteko asmoa duenak Martxoaren 24 asteazkena gauerdia aldera izango du aukera, orduan pasako baita Korrika Urretxu-Zumarragatik. Egund berean eskolako haurrentzat Korrika txikia eta txokolatada izango dira.

Korrika 11ren inguruan informazio gehiago nahi duenak

www.jalgi.com/Korrika
interneteko helbidean topa dezake.



Iñaki beti genuen euskararen alde aurreko puntan

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



Pixkanako ikasturtea aurrera doa eta jada udaberriari ateak zalbaltzen dizkion hilabetean sartuak gaude. Ea eguraldi ona ere berarekin heltzen den eta aretoetatik kanpoko kirola egiteko eta mendira joateko aukerak ditugun. Aste Santuko oporrak gainean ditugu eta hortik aurrera jada udako oporrak hurbilduko dira.

Txikimotz ale honi dagokionez, futbol 7 txapelketako sailkapenak biltzen ditu eta Gainzuriko mutil batzuekin hitz egin dugu eskola kirolari buruz.

TXIKIMOTZ

FUTBOL 7 TXAPELKETAREN

SAILKAPENAK

BENJAMIN-3. MAILA, MUTILAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
GAINZURI A	5	4	1	0	56	10	13
HAZTEGI B	5	4	1	0	32	12	13
IKASTOLA A	6	3	1	2	28	34	10
LA SALLE A	5	2	1	2	23	17	7
HAZTEGI A	5	2	0	3	14	35	6
D. AGIRRE	5	1	0	4	15	26	3
GAINZURI B	5	0	0	5	6	36	0

BENJAMIN-4. MAILA, MUTILAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
GAINZURI D	5	4	1	0	38	12	13
IKASTOLA C	5	4	1	0	31	9	13
HAZTEGI C	5	2	1	2	21	18	7
GAINZURI C	5	2	1	2	16	22	7
IKASTOLA B	5	2	0	3	17	17	6
LA SALLE B	5	0	1	4	10	23	1
HAZTEGI D	5	0	1	4	10	43	1

ALEBIN-5. MAILA, NESKAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
LA SALLE A	6	5	1	0	22	9	16
IKASTOLA A	3	0	3	3	23	22	9
D. AGIRRE	6	2	1	3	9	11	7
HAZTEGI A	6	1	0	5	19	31	3

ALEBIN-6. MAILA, NESKAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
IKASTOLA B	6	5	0	1	23	5	15
HAZTEGI B	6	4	1	1	9	4	13
LA SALLE B	6	1	1	4	6	15	4
GAINZURI	6	1	0	5	5	15	3

ALEBIN-5. MAILA, MUTILAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
LA SALLE A	5	4	1	0	24	11	12
GAINZURI A	5	3	2	0	32	15	11
D. AGIRRE A	5	2	2	1	15	8	8
IKASTOLA B	5	2	1	2	21	12	7
HAZTEGI B	6	1	2	3	18	30	5
HAZTEGI A	5	1	2	2	13	20	5
IKASTOLA A	5	0	1	4	13	36	1

ALEBIN-6. MAILA, MUTILAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
HAZTEGI C	6	5	1	0	34	11	16
IKASTOLA C	6	4	1	1	24	15	13
D. AGIRRE	6	3	1	2	15	26	10
GAINZURI B	6	2	1	3	25	19	7
LA SALLE B	6	2	0	4	14	22	6
HAZTEGI D	6	0	1	5	11	30	1

INFANTIL, NESKAK

TALDEA	JOKATUAK	IRABAZIAK	BERDINDUAK	GALDUAK	ALDE	AURKA	PUNTUAK
IKASTOLA A	7	7	0	0	70	5	21
HAZTEGI C	7	6	0	1	29	12	18
LA SALLE	7	3	1	3	18	27	10
HAZTEGI B	7	3	1	3	16	24	10
I. OLAZABAL	7	3	1	3	15	18	10
HAZTEGI A	7	1	4	2	22	26	7
I. IPARRAGIRRE	7	1	1	5	19	38	4
IKASTOLA B	7	0	0	7	9	48	0

"URTEAN ZEHAR KIROL ASKOTAN ARITZEN GARA"

Ale honetan Gainzuri ikastetxean ikasten duten bost mutilekin hitz egin dugu.

Aurten 9 urte beteko dituzte eta beraz, 3. mailan ikasten ari dira. Beraiek Aitor Casales, Aitor Biain, Mikel, Endika eta Xabier dira.

Zer kirolean aritu zarete orainarte?

Ikasturte hasieran futbolekin aritu ginen eta orain, berriz, saskibaloian ari gara.

Ondoren eskubaloian ere ibiliko gara. Kirol askotan aritzen gara, baina denetan gustura ibiltzen gara.

Gaurkoarekin, zenbat saskibaloia jokatu dituzue?

Orainarte 5 partida jokatu ditugu. Aurreko lauak irabazi egin ditugu, baina gaurkoan lehenengoz galdu dugu.

Txapelketan Haztegi ikastolako bi talde, Domingo Agirre, La Salle eta gu aritzen gara.

Astean zenbat egunetan entrenatzen duzue?

Bi egunetan entrenatzen dugu: ostegunetan eta ostiralean. Luzatze-arietek, korrikak eta partiduek osatzen dute entrenamendua.

Zeintzuk dira zuen entrenatzaileak?

Yoana Garcia eta Vanesa Mateosek entrenatzen gaituzte. Jatorrak dira eta ondo portatzen dira gurekin, baina gu batzuetan beraiekin ez gara hain ondo portatzen eta orduan etxera bidaltzen gaituzte.

Zeintzuk dira zuen kirol eta kirolari gustukoena?

Aitor Casales: Nire kirolik gustukoena futbola da eta gehien atsegin ditudan jokalaririk Bartzelona taldekoa dira.

Aitor Biain: Nik ere futbola dut gehien atsegin dudana

kirola, baina ni Errealekoa naiz. Alaves ere gustuko dut. Gehien atsegin dudana jokalaria Kovacevic da.

Mikel: Nik ere futbola dut gustuko eta Errealekoa naiz, baina jokalaririk gogokoena De Pedro dut.

Endika: Niri saskibaloia gustatzen zait eta nire taldea Gasteizko Tau da.

Gogokoena dudana jokalaria Winters da.

Xabier: Futbola da gehien atsegin dudana kirola eta Errealekoa naiz. Nire jokalaririk gogokoena Kovacevic da, baina Juninho ere oso gustuko dut.



Zer iruditzen zaizu txakurren inguruan sortu den iskanbila guztia?



Florencia eta Beatriz

Arazoak sortzen dituzten txakurrak hiltzeko prestatuak daude. Errua jabeena da eta ez txakurrena. Leku askotan txakurren arteko borrokak ere antolatzen dira.




Rosa Maria Sanz

Errua jabeena da, gazte askok borrokarako prestatzen dituzte txakurrak. Gainera jende askok jende asko dabilen inguruetan ere txakurrak aske eramaten ditu.




Idoia Gorrotxategi

Nik uste txakurrak aske eraman behar direla. Baina argi dago txakur batzuek arazoak sortzen badituzte eta lotu beharra badago errezena denak lotzea izango dela. Dena den, errua jabeek dute eta ez txakurrek.



Jose María Hernández

Nik uste txakurrak kaletik loturik joan beharko liratekeela. Gainera jende askok txakur oso handi eta agresiboak ditu.



Sebastian Bian

Txakur guztiak katez lotuak joan beharko lirateke eta arriskutsuak direnek bozala eraman beharko lukete.



David Pérez

Nire ustez gai honetan asko exageratu da. Txakurren batek kalteren bat egin badu ziur nago erruduna jabea dela. Jabea zentzuduna ez bada, ez litzaioke utzi beharko leku publikoetara txakurra eramaten.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika


Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

“Urretxu eta Zumarragako Toponimia” liburuaren aurkezpenak



Jose Luis Ugarte

Jose Luis Ugartek Zintzo-Mintzoren babesaz eginiko liburuak 2.729 toponimo biltzen ditu eta hauetako 1.805 liburuarekin batera datorren planuan kokaturik daude. Hauetako bakoitzean toponimoa zer den (baserria, parajea...), nola ahoskatzen den, informazioa zein baserri-tarrek eskeini dion, planuan duen kokagunea, toponimo horrek dituen beste izenak eta toponimoaren inguruan aurkitu duen beste informazioa biltzen da. Lan itzel hau egiteko Jose Luisek urteak eman ditu, inguruko baserriar gehienekin hitz egin du, artxiboetara jo eta mendian ere hamaikatxo kilometro egin ditu. Baina azkenean emaitza bikaina lortu du eta Euskaltzaindiak bere lana goraiatu eta onomastika bilduman onartu du. Bere lanari esker galtzear zeuden herriko parajeetako izen asko eta asko betirako bilduak geratzen dira. Zintzo-Mintzo eta Jose Luisek eginiko lana ez da hemen bukatzen gainera: bilketa lan honi probe-txua ateratzeko inguruko mendietatik zenbait ibilaldi antolatu behar dira ikastetxeetako gazteei bi herriotako zenbait tokiren izenak eta kokagunea erakusteko. Bestalde, toponimia liburuak eskuratu nahi duenak bi herriotako liburudendetan eros dezake 3.000 pezetatan.

Aurkezpen ofiziala

otsailak 19an izan zen Zumarragako Legazpi dorretxean. Aurkezpen ekitaldiko mahaian Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko buru den Hendrike Knörr; Eusko Jaurlaritzako Xabier Aizpurua eta Josune Ariztondo; bi herriotako alkateak, Antón Arbulu eta Pello González; Loren Aristi, kutzako ordezkari gisa; eta nola ez, liburuaren egilea den José Luis Ugarte izan genituen. Ugartek Zintzo-Mintzoren babesa goraiatu eta liburuak egiteko burututako bidea azaldu zuen, baita bide luze honetan bizitako esperientzia ezberdinak ere.



Ugarte liburuak lagundu duten instituzioetako ordezkariekin



Bi herriotako baserri-

rrekin ere aurkezpen bereziak egin ziren liburu hau egiteko eskeini duten laguntza eskertzeko. Izan ere José Luisek bildu duen informazioaren zati handi bat beraiek eskeinia izan da eta beraiek dira galtzear dauden toponimo asko eta asko gaurdaino gorde eta erabili dituztenak.



Azken urte hauetan behar izan den guztietan José Luisi eskeinitako laguntza eskertzeko otsailak 23, 24 eta 25ean Santa Barbara, Antio eta Agiñako elkarteetan bildu ziren baserriarrek, Ugarte eta Zintzo-Mintzoko kideak. Bertan liburuaren aurkezpena burutzeaz gain, azken urte hauetako elkarlanaz, liburuaz eta oraindik bildu gabeko toponimoak biltzeaz hitz egin zen.



Onomastika Batzordeko kideak

Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko kideak

ere toponimia liburuaren aurkezpenean izan genituen, liburuak beraien bilduman jasoa baitago. Zumarragara eginiko bidaia aprobetxatuz, Legazpi dorretxean hileko 3. ostira-lean izaten duten bilera egin zuten. Hemen zenbait gai aztertu zituzten: Leioa, Kripan eta Lantziegoko zenbait dudazko kale izen, Zuberoako herri-izendegia, zenbait eskaera solte eta A-z hasten diren emakumezkoen euskal ponte izenak. Zumarragan Hendrike Knörr, Mikel Gorrotxategi, Andrés Iñigo, José Luis Lizundia, Juan San Martín eta José María Satrustegi izan genituen.



Zumarragako Euskal Herritarrok plataformaren aurkezpena

Otsailaren 16an Ama-Lur elkartean Euskal Herritarrok sortzeko bildu den taldearen aurkezpena egin zen. Aurkezleak Mari Companys, Peio Galvez eta Lazaro Ormazabal izan ziren. Hasteko Euskal Herritarrok-ek bere jaiotzetik sortu duen ilusioa eta historikoki bizitzen ari garen gatazkari konponbidea emateko eman dituen pausua azpimarratu zituzten. EHren helburua Euskal Herria ezkerretik eta burujabetasunetik eraikitzea da eta prozesu berri honetan udalek izango duten garrantzia dela eta Zumarragan ere taldea sortu da.

EHko Talde Promotore honetan 40 pertsona inguru bildu dira eta euren helburua proiektu berri, indartsu eta zabala egitea da.

Adostutako programa bat dinamizatu eta sektore abertzale eta ezkerzaleak batu, datozen hauteskundeetara begira plataforma bat osatzeko. Aurkezleen esanetan Euskal Herritarrok Zumarragako udaletxean elementu determinante bat izango da ekainetik aurrera eta udal hauteskundeetan sorpresa emango duten ziurtasuna dute. Sustatzaileen esanetan, "Zumarragarako eredu alternatibo

bat gauzatu nahi dugu. Zumarraga justuagoa nahi duten sektore guztiak martxan jartzera goaz. Herriak udaletxean parte hartzeko, justizia sozialaren alde pausua emateko, gure kulturaren alde... ekimen zehatzak aurkeztuko ditugu. Zumarragarik onena nahi dugu, eta guretzat herriaren handitasuna gizakien mailaren arabera neurtzen da, beraz, erabakiak



hartzeko garaian herritarren parte hartze mailaren arabera, herritarrek etxebizitza duina izateko dituzten erreztasunen arabera, eskeintza kulturalaren arabera eta abar."

Bukatzeko ezkerretik eta burujabetasunetik Zumarraga, eta bide batez Euskal Herria, eraiki nahi duen kolektibo eta herritar guztiei plataforma berrian parte hartzeko gonbitea luzatu zieten.

Zumarragako gidaren aurkezpena


Otsailaren 26an Zumarragako udaletxean legegintzaldi honetako herriko gida aurkeztu zen. Aurkezleak Patxi Diffor, gida egiteaz arduratu den enpresako ordezkaria; Antón Arbulu alkatea, Juanjo Sagarna zinegotzia, Antonio Prada eta Juan Mari Gabirondo izan ziren. Gidak industria eta merkatal zerbitzuen telefonoak, herriko planu bat eta Zumarragako historia, geografia eta kultura biltzen ditu era laburrean eta diseinu erakargarriekin.

Alkatearen esanetan gida hau Zumarraga den eta izan nahi duen bilduma da. Ekimen hauei guztiei esker Zumarraga ezagutzera ematen ari omen da eta FITUR turismo erakusketan ere mintzagai izan omen da Hiru Tenpluen Ibilbidearen eskutik.

Patxi Diffor egileak gida erkargarria



Gida aurkeztu zuten kideak



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F. URRETXU

☎ 725682 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA




☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 725828
20700 URRETXU



*ibante-
riak 99*





MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Narmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 724482



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA


GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Beregailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxe: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Pello González, Urretxuko alkatea, Udal Ordezkarien Biltzarreko mahai iraunkorrean

“Epe laburreko ekimen bat Aberri Eguna elkarrekin ospatzea izan daiteke”


Otsailaren 6an Iruñean Euskal Herri osoko udal hautetsiak bildu ziren eta bost puntutan udal izaeran oinarritutako instituzio nazionala eratzeko nahia eta helburua biltzen dituen idatzia adostu zuten. Bildutakoen artean Urretxu eta Zumarragako zenbait ordezkari ere izan ziren. Pello González, Urretxuko alkatea, ekimena aurrera ateratzeko sortu den hamar kidetako mahai iraunkorreko partaidetako bat da.

Zer da zehazki Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarra?

Hasteko hori da zehaztu beharrekoa, udal ordezkarien biltzar bat dela eta ez udalerriena. Gure borondatez ideia eta helburu batzuekin bildu garen udal ordezkari batzuk gara. Aurretik herrialde guztietako zenbait alkate bildu eta era pertsonalean biltzeko deia luzatu genien alkate guztiei eta alderdi guztietako bozeramaleei. Azkenean Hego Euskal Herriko abertzaleak, independenteak eta Iparraldeko Abertzaleon Batasuneko ordezkariak bildu ginen. Bertan elkartu ginenok kargu bat dugu, baina titulu pertsonalean joan ginen, ez udal plenuak agindurik eta udala ordezkatzuz. Iruñean bertan sortu zen organuaren ezaugarriak biltzen dituen testua adostu genuen.

Zeintzuk dira biltzarraren betebeharrak eta helburuak?

Bake prozesua konsolidatzea eta Euskal Herria nazio bezala ulertzen duen instituzio bat sortzea. Honek orain artekoek biltzen ez dutena biltzen du: 6 herrialdeak alegia. Bertan gaudenoi udal ordezkariak izateak eta elkarlanerako borondateak biltzen gaitu. Zenbait gai amankomunean landu nahi ditugu nazio ikuspegi batetik: euskara, ekonomia, kultura... ezaugarri amankomunak baititugu. Gero, organu honetan har ditzakegun erabakiak herri borondateetik sortutako instituzioetara igorri behar ditugu, hauek baitute erabaki hauek aurrera eramateko ahalmena. Ez dugu inongo erakunderik ordezkatu nahi,



Pello González, Urretxuko alkatea

topaketa organu bat sortu baizik. Bestalde, biltzarraren azken betebeharrak Europa eta mundu mailan Euskal Herria nazioa den ideia agertaraztea izango da.

Bestalde, ekimena aurrera ateratzeko sortu den mahai iraunkorrean zaude...

Bai, batzarrean 10 pertsona aukuratu ziren proiektua aurrera ateratzeaz ardura zitezen eta ni hauen artean nago. Hemen EAJK 5 ordezkari ditu, EHk 2, EAK beste bi eta Abertzaleon Batasunak beste bat. Gure eginbeharrak, organuaren estatutuak zehazteaz gain, zenbait ekimen aurrera ateratzea ere izango da. Guk gehiengoz hartzen ditugun erabakiak gero alderdiek beste instituzioetan bultzatzeko ardura izango dute. Egia esan, ekaineko udal hauteskundeek puntu eta jarraia suposatzen dute. Ordurarteko ekimenak gehienbat estatutuak zehaztu eta zenbait ideia biltzea izango da. Ekimen zehatz bat Aberri Eguna elkarrekin ospatzea izan daiteke.

Zein onura somatzen dizkiozu Udal Ordezkarien Biltzarrari?

Behinbetiko bakea lortzeko apustua argia da. Orainarte indarkeriak abertzaleak zatitu egin gaitu eta behin hau desagertu ondoren, elkarrekin lan egiteko erabakia hartu dugu. Instituzio berriak sortzeko gehiengo indartsuak ez ditugun bitartean hau ontzat emango dugu eta helburu berberaren alde lan egin. Nahi dugun herri eredu zehaztu eta eredu honentzat lan plangintza finkatu behar da. Ondoren hau transmititu egin beharko da. Herriaren %53ak uste badu orain artekoa gainditu beharra dagoela zerbait egin beharko da. Estatutuaren eremua ez bada erreferentia eta konstituzioa erasotu behar bada nola eta noiz zehaztu beharko dugu. Baina Udal ordezkarien biltzarrak ez du zaidurarik sortu nahi, gehiengoak nahi duena aurrera ateratzeko bide berriak sortu baizik. Azken finean, herri hau euskaldunon gehiengoak nahi duena izango da.

“Urola Garaiko lau herriotan EA eta EAJK zerrenda amankomunak aurkeztuko ditugu”

Zer gertatzen da kanpoan gelditzen direnekin?

Argi dago, nahiz eta guk bezala pentsatzen ez duten nolabait integratu egin beharko ditugula. Protagonismoa eman beharko zaie. Demokrazian gehiengoak agintzen duen arren, gutxiengoak errespetatu behar dira. EAEn, adibidez, gainontzeko %47a ordezkatzeko dutenekin kontsentsu bat lortu beharko litzateke egoera aldatzeko. Baina adostasuna lortzerik ez badago gehiengoaren indarra erabili beharko da. Beti ari ziren esaten HB instituzioetara joan behar zela eta orain ez dute gus-tuko. Badirudi lehengo egoeran egokiago zaudela. PP, PSOE eta UA ere batzeaz hitz egiten hasi dira, hala egiten badute argi utz dezatela herri hau espainola izan dadin egiten dutela.

Baina aurkako korrante indartsu horri aurre egiterik izango al duzue?

Guk ideia saldu dugu, beste gauza bat da zenbait kritika interesatu egotea. Lanean jarraitu beharra dugu polemika artifizial horiei guztiei jaramonik egin gabe. Gure burua ezagutzera eman beharra dugu gu ordezkatzen ez gaituztenak sortzen ari diren efektu txarra saihesteko. Egoera hau ezin da luzaroan mantendu, egonkortasun falta hau esparru egokia lortu ez delako ematen da. Nik uste kostatzen dela, baina 5, 10... urtetako epean Euskal Herriari erabakitzeko aukera emango zaiola eta inork ezingo diola erabakitakoari ezetz esan.

Gehiengoaz ari zara, baina Nafarroa eta Iparraldean egoera oso ezberdina da.

Gure aldarrikapenak herrialde bakoitzaren izaera errespetatzen du. Argi dago Araban ere arazoak sor daitezkeela, abertzaleon arteko batasuna bultzatzea apostu handia baita. Gure helburua ekintzen bidez integratzea da, jendeak uler dezala arlo amankomunetan lan egitea besterik ez dugula nahi. Beste batzuk sortzen ari diren beldurrak kentzea lortu behar da. Nafarrei ikustarazi behar zaie, adibidez, bertan euskararen koofizialtasuna izatea aberasgarria dela eta ez inposizio bat. Gainera, bere garaian, nafarrei ez zitzaizkien galdetu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarenkin batera egon nahi zuten edo ez. Beharbada momentu hartan PSOEk azken unean erabakia aldatu ez balu gurekin legokete.

Gaiak aldatuz, ekaineko hauteskundeetara aurkeztu behar al zara?

Alderdiaren eskeintza jaso nuen eta

Euskal Herriko Udal Ordezkarrien aldarrikapena

Iruñean bildutako udal hautetsiek honako bost puntuotan bildu zituzten udal izaeran oinarritu tako instituzio nazionala eratzeke nahia eta helburua:

1. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.
2. Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta sei herrialdeetako udal ordezkariek esparru erkidean batzeko asmoz.
Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.
3. Erakunde iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondateak pilatu eta batzeko sortua da eta ez du, ordea, beste erakunde baten bihurtzeko asmorik. Izan ere, erakundea nazio esparru koa denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu, dinamika politikorekin bat eginez.
Egituratzeko honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu behar dira, non euskaldunen parte hartzea funtsezkoa litzateke eta herrialde historiko guztien nortasuna eta eraentza errespetatuko liriteke.
4. Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Erakundea zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalean bere jardura garatzen duen hautetsi guztientzat, politika, kultur, soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzara esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena, ongi izatea...
Lehendabiz, Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzkoa egingo litzateke: geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu eta homogeneoan egingo litzateke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeei, e.a. bideratuko litzazkieke.
5. Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa ea desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

jarraitu egingo dut. Lehenago bi alderdieta-ko buruzagitzak ados jartzen badira, badirudi Urola garaiko 4 herrietan EAJ eta EAK zerrenda amankomunak aurkeztuko ditugula. Orainarte aurkeztu naizenetan nik egin ditut zerrendak eta nire ideiekin bat datorren jendeaz inguratu naiz. Oraingoan asko hitz egin beharko da, baina zerrenda amankomunak aurrera aterako direla uste dut. Hauteskundeak baino lehen eztabaidatu eta egokiena aurretiko programa amankomuna egitea litzateke. Alkatetzarako hautagaia 95ean botu gehien jaso zituen alderdiarena izango denez, Urretxun ni neu izango nitzaiteke. Kalkuluen arabera EA eta EAJk alkatetzara dextente irabaziko ditugu, hauen artean Zumarragakoa, eta PSE izango litzateke kalteuena. Bestalde, Hego Euskal Herri mailan asmoa Foru Aldundietara eta abertzaleok lehen indarra izateko arriskua dugun lekuetara elkarrekin arukeztea da. Baita alderdi batek eskatu eta besteak baiezkotzea ematen duen lekuetan. Nik uste Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gutxienez abertzaleak izango direla eta abertzaleak 3 alderdienak esan nahi du.

Gerta al daiteke hiru alderdi abertzaleak PP edo PSEri alkatetzak kentzeko ados jartzea?

Ez, EH ez legoke hau egiteko prest; beraiek ere honelako ekintzengatik lehenago kaltetuak izan baitira. Beraiekin ere hitz egin zen zerrenda amankomunetan sartzeko baina ez zuten nahi izan. Dena den, hauteskunde aurretiko batasunen aurka ez dute ezer, hauteskunde ondorengoak dira gustuko ez dituztenak.

CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

**Madaia plazaletan
20700 URRETXU**

TABERNA



**Jaureratu
JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎943 720819
ZUMARRAGA



Belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz

Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



**OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA**

S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Joxe Manuel Bereziartua kaleko artistaren karikatura erakusketa

Azken bi aste hauetan Juan de Lizarazu aretoan erakusketa berezi bat izan dugu ikusgai: Joxe Manuel Bereziartuak, "Bere"k, azkenaldi honetan burututako lanak. "Bere" ez dugu komunikabideetan ikustera ohituak gauden artista eta bere lanak ere ez dira erakusketa aretoetan egon ohi diren horiek. Kalean askotan lan egindako artista dugu eta bere lanak ere kaleko jendarengandik hurbilagoak direla

Nolatan hasi zinen marrazki munduan?

Txikitatik dut afizioa, eskolako liburu guztiak margotzen nituen. Ikasle kaxkarra nintzen baina margotzen behintzat ikasi nuen. Autodidakta naiz, baina zenbaitetan kursillo ezberdinetara ere joan naiz: Vaquerizarenak, marrazki bizidunenak, multimedia... Bellas Artes edo antzeko ikasketak egin izana ez legoke gaizki, baina bertatik irtetzen den jende askok gehiegi ez duela ikasi ere ikusi dut.

Zer ibilbide jarraitu duzu urte hauetan guztietan?

Kartelak margotzen, furgonetak margotzen... egin nituen diru trukeko lehen lanak. 18 bat urterekin Tiffany's-era joan eta kitarra bizidun baten marrazkia 200 pezetatan saldu nuen. Zenbait udaratan zehar kostaldera joan nintzen bertan erretatuak egin eta zoluan margotzera. Donostian, Zarautzen, Asturiasen, Andaluzian... izan nintzen. Ateratzen nuen diruaz udara bertan pasa nezakeen,

baina urtean zehar furgonetak eta kartelak margotzen jarraitu beharra nuen. Ondoren Ipar Haizearen Erronka izeneko marrazki bizidunen filma egiten ere izan nintzen Donostian Juanba Berasategi eta beste lagun batzuekin. Asko ikasi nuen egunean 8 orduz jarraian marrazki bizidunak egiten.

Nola ikusten duzu arte munduaren egungo egoera?

Hasteko nire burua artista baino gehiago artisautzat dut. Arte munduan pedanteke-ria izugarria dagoela iruditzen zait, artista askori egiten duena sekulakoa dela iruditzen zaio. Arteak munduari kontzientzia berri bat sortzen lagundu diezaioke, baina baita beste gauza askok ere bai. Ez al luke ba eragina izango futbolari famatu batek edozein bidezko eskubideren alde lanean hasteak? Bestalde zenbait artista jainkotuak ditu eritzi publikoak, badirudi beraiek bakarrik lan egiten dutela eta beraiek bakarrik saltzen dute. Oteiza eta Chillida hauen artean daude, hala ere artista ontzat ditut.

esan daiteke. Erakusketa honetan pertsonaia ezberdinen karikaturak, ordenagailu bidez eginiko argazki muntaiak eta konpondutako argazki zaharrak ikusi daitezke. Bere trebeziaren adierazle dira ere "Otamotz" ale honetako azala eta baita aurreko alekoa ere. Oraindik Juan de Lizarazu aretotik pasa ez bazarete, asteburu honetan duzue erakusketa ikusteko azken aukera.



Bere eta aldizkari honetarako egin zuen azala

Nola doa erakusketa?

Oso gustura nago, jende dexente inguratzen ari da eta beraiekin hitz egin eta nere lana azaltzen diet. Nire lana ezagutzera ematen ari naiz eta honela jendeak badaki noizbait norbaiti karikatura bat oparitu nahi badio edo argazki zahar bat konpondu nahi badu nora jo.

Hainbeste urtetan kalean artista gisa ibili ondoren kontakizun bereziren bat izango duzu?

Uff... pilo bat. Andaluzian geundela toren koadro handi bat margotu eta rifa bidez zozketatzea pentsatu genuen. Rifarik ez genuen saldu eta herrira nola ekarri ez genuenez, goxokiak saltzen zituen ondoko postukoari oparitu genion. Honi zer bururatuko eta bere postuan estalki bezala jarri zuen. Gizon batek hura ikusi eta koadroa 2000 pezetatan erosi zion. Hurrengo urtean Andaluziara itzuli eta gure koadroa elegante-elegante ikusi genuen taberna batetako paretan. Tabernariak 50000 pezetatan erosi zuela esan zigun.



Erakusketan pertsonaia famatu askoren karikaturak ikusi ditzakegu

Eneko Zabala ezkiotarra Euskadiko kross txapelketan bigarren


Eneko batxillergoko lehen maila ikasten ari da Garaialde lizeoan eta aurten 17 urte bete behar ditu. Duela zazpi urte hasi zen korrikan zenbait lagunekin batera eta otsailaren zazpian bere herrikideen aurrean Euskadiko txapeldunorde izatea lortu zuen.

Zeintzuk izan dira orain arte lortu dituzun emaitzarik onenak?

Postu onak lortu ditut baina irabaztea kosta zait. 97an Gipuzkoako txapelketan bigarren egin nuen eta Euskadikoan bosgarren. Azkeneko txapelketa baino lehen lesionaturik egon naiz, tendinitisa izan dut, baina hiru astetan zehar entrenatu ondoren azkenean bigarren izatea lortu nuen.

Astean zenbaitetan entrenatzen duzu?

Entrenamenduak Mikel Cristobalek prestatzen dizkit. Lasterketa korritu behar dudan asteetan lau egunetan entrenatzen dut, bi ordu inguruz. Korrikan ordubete inguru entrenatzen dut, 10-12 km., baina lasterka hasi baino lehen eta ondoren beroketarako luzatze-arietak ere egiten ditut. Normalean Mugitegin eta Bidegorrian entrenatzen dut.



Pistan ere aritzen al zara?

Kross denboraldia bukatzen denean pista ere egiten dut, baina egia esan nahiago dut krossean aritu. Pistan orainarte 3000 metrotako lasterketan parte hartu dut, baina aurten 5000 metrotakoan parte hartzen hasiko naiz. Pistan erritmo azkarragoa eramaten da zelaian baino eta gainera erritmo aldaketak bortitzaigoak izaten dira. Niri asko kostatzen zait erritmo aldaketa hauek egitea.

Nora joaten zarete lasterketan parte hartzera?

Lasterketa gehienak Gipuzkoan izaten dira, Euskadiko txapelketa izan ezik. Hala ere denboraldi bukaeran Soria ingurura ere joan izan gara lasterketaren batean parte hartzera.

Ze asmo dituzu etorkizunera-ko?

Ez dut asmo berezirik, korrikan segituko dut ahalik eta gehien hobetzeko. Krossean emaitzak postuen bidez soilik neurtu daitezke, baina pistan denborak ahalik eta gehien hobetzea izango da helburua.

Goierrri Garaia taldeko partaideen sailkapena Euskadiko kross txapelketan:

Gizonezkoak kadete maila: 47. Joseba Iglesias

69. Eneko Kortabarria

Emakumezkoak kadete maila: 24. Uxue Fernández

Gizonezkoak jubenil maila: 2. Eneko Zabala

58. Gorka Rodríguez

66. Josu Ibarburen

Gizonezkoak senior maila: 9. Jesus Mari Manso

12. Cipriano Burcio

13. Asier Zarraga

23. Asier Cueväs

Gizonezkoak promesa maila: 16. Sergio Martínez

Emakumezkoak senior maila: 5. M^a Elia Martínez



Andoni Salamero
irakasle saltseroa

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Irakaslea

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Epela

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira joan, irakurri, idatzi... denetik pixka bat.

✓Zer opari hartuko zenuke gustura?

Ez dut bereziki gustura hartuko nukeen ezer

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Axular edo Lizardi

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Atsedean ona hartzeko

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Daukadanarekin gustura nago

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Bere barrura

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Taldeen arteko elkartasuna eta elkarlana

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Beloki eta Irimoko zazpi puntak

✓Zumarragan izan ezik non biziko zinateke gustura?

Urretxun edo Ezkion

✓Zein da duzun ohiturarik okerrena?

Sintzeroegia izatea

✓Bete gabeko amets bat?

Gitarra jotzea

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Lauetarako, batez ere gozatzeko

✓Kantu bat.

Mundurak eman ninduzun eta Erribera

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Normalean nire zain egoten dira

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Hitza ez jatea

✓Norengatik joango zinateke azken muturre ra?

Familiarengatik, lagunengatik, herri honengatik...

✓Gaua ala eguna?

Biak

✓Lo egiteko zer?

Liburu on bat ondoan eta estalki goxoa

✓Gustuko janari bat?


Arkumea eta entsaladak

✓Ura, ala...

Sagardoa

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Liburu bat idaztea



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOAK

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA

☎ 725775

Bartzelonako "monumentuek" aho zabalik utzi al zaituzte? Euskal Herrian ederragoak daudela zin egingo genuke ba... **Zorionak Ainara** eta eskuminak Figori!

Ainhoa ez al duzu mutilari ezizena aldatzen pentsatu? Ilea luzatzen uzten ez duen bitartean ez darara duintasunez. **Zorionak!**

Amaia seria sarkatara zara argazkian, era hurrengoan irri-farre txiki bat eskeintzen diezun irakurleei. **Zorionak** eta alaitu aurpegi hori, oraindik gaztea zara eta.

Ander ez da harritzekoa hain zoriontsu agertzea. Ziur etxe guztiak egun guztian zure zerbitzura dituzula. Aprobetxa ezazu ahal duzun bitartean. **Zorionak!**

Angel zure argazki baten bila ibili eta hara azkenean nola-koa aurkitu dugun! Kasualidadea ote orduan ere parrantan aritzea? **Zorionak!**

Aste Santuan nora joan behar zara oporretara, **Benidormera** ala **Benicassimera**? **Zorionak** eta segi orainarte bezain irrifartsu!

Estefania ez zara ba zu ere Monakokoa bezala etxe aldrebesea izango? Bihurri aurpegia baduzu behintzat! **Zorionak** eta ondo prestatu jaunartzera-ko.

Martxoaren 9an sei urte betetzen dituzula eta, zure guraso, anai Jon Ander, aitxatxa, amama eta osaba-izeben izenean. **Zorionak Erik** eta orainarte bezain txintxo portatu!

Ikerne, karneterako argazkian irrifarre egitea ez dago debekaturik oraindik! **Zorionak** eta urte askotarako!

Izaskun azpiko neskato bati Heidiren antza hartu diogu, baina ez dakigu ez ote zaren zu izango artzainaren laguna! **Zorionak!**

Jose Luis Ander saskian sartu behar izaten al duzue geldirik egon dadin? Aitonarengandik nahi duen guztia lortuko duenaren susmoa dugu. **Zorionak!**

Argi ibili emakume honekin! Itxuraz formal dirudien arren, ihauterietan ondotik pasatzen zenari eskobarekin egurtzen ibili zen horietako bat da eta! **Zorionak!**

Maritxu Pedro ondo portatzen al da alabarekin? Señorita Rotermeieren papera hartu beharko duzu beharbada! **Zorionak!**

Miren oraingoan ere baduzue merien-daren bat egiteko aitzakia. Zuek bai bizi! Ez da harritzekoa gero beti irrifarra ahoan izatea. **Zorionak!**

Pili umore faltan ez zabilta behintzat! Txiste lehiaketa antolatu al duzue komentuan? Aintzane ere aurki joango zaizue parte hartzera. **Zorionak!**

Rosario zuek ere pelikulakoez bezala "doskaballosa" erabiltzen al duzue? Udaran txango ederrak egingo dituzue tetxua jasota! **Zorionak!**

Viva la **Pepa!** Familia eta lagun guztien partetik **zorionak** eta urte askotarako.

Maialen eta **Leire**, Leire eta Maialen, a ze pareka karakola eta barea! Argazkian txintxo-txintxo atera zarete, argazkilariak goxokiak eman al zizkizuen? Ez dituzue ez bion artean bihurrikeria makal prestatuko etxean zaudetenean! **Zorionak** eta ondo pasa zuen urtebetetze eguna!

Zorionak Garazi! Ondo ospatuko zenituen estreinatu berri dituzun 12 urteak, ezta? Barkatu, baino gezurtxo bat izan zen. Zer erremedio!

Mikel, zuk bai izan zenuela zorte txarra, lau urtetik behin soilik jasotzen al dituzu opariak? Aurten behintzat sorpresa itzela izango duzu. **Zorionak!**


Lau urteko mutikoa! Pozik egotekoa da, bai. Izan ere, hainbeste espero zenuen eguna iritsi da. **Zorionak Mikel!**

Iobana muxugorri horrekin ardiak eta Pedro bakarrik falta zaizkizu Alpeetan artzain sartzeko. **Zorionak** eta kontuz inguru haietako elur jausteekin!

Urte askotarako **Miren** amona, osaba-izeba, lehen-gusu eta bereziki, **Ander**, aitaxto eta amatxoren partez. **Zorionak!**



- **Ehunak eta oihalak**
- **Tapizeriak**
- **Kortinak**
- **Nordikoak**
- **Era guztietako etxerako gaiak**



AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

DENDA BERRIA!

Gotzon Agirrezabal

Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.



IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**



FAGOR

**Udala Enparantza, z/g
Tel: 943 79 00 43
20500 ARRASATE**

**Ipeñarrieta,5
Tel: 943 72 50 75
20700 URRET XU**